



## Duvoisin kapitainaren malura Bonaparte printzearen itzalean

**Kepa Altonaga**

*Upaingoa 35*

ISBN: 978-84-9172-071-3

Urtea: 2018 / 128 or.

13x19 cm

**12,00 €**

Ohikoa da Duvoisin kapitaina heroi handia bailitzan aurkeztea Biblia osoa itzuli baitzuen lapurterara, eta, halaber, Bonaparte printzea aipatzea euskal kulturaren bultzatzaile probidentzial gisa. Betiko irakurketa hori kuestionatzea izan da *Duvoisin kapitainaren malura* liburu honen abiapuntua.

Kepa Altonagak era konbentzigarrian eztabaidatu du usadiozko interpretazio hori, eta irauli egin du, uzkaile. Uste denaz kontrara soka-tira gogorra gertatu zen Bonaparte printzearen eta Duvoisin kapitainaren artean, gure itzultzaileak argi ikusten baitzuen ezinbestekoa zela prosa supradialektala, euskarari proiektio kulturalik txertatzekotan. Printzeak orratzez entomologikoki fixatu nahi du aniztasun dialektala; Duvoisinek, ostera, literatura egin nahi du euskaraz. Soka-tira horixe bera bizi izan zuten printzearen gainerako korrespondentselek ere, hala nola Klaudio Otaegik, Johane Arxuk eta Uriarte frantziskotarrak.

Nolanahi ere, Bonaparte printzearen itzala luzea da, eta bizi-bizirik igar dezakezu euskararen munduan ugaritzen ari diren hainbat adierazpide antikulturaletan.

• • •



**KEPA ALTONAGA** (*Loiu*, 1958)

Hautzaroko lehen urteak Txorierrin bizi izan eta gero, Bilbon kokatu zen. Biologia-ikasketak Euskal Herriko Unibertsitatean: 1980. urtean lizentzia eta 1988an doktore-gradua. Zoogeografia eta Ornogabe Ez-Artropodoen Zoologia irakasten ditu Zientzia eta Teknologia Fakultatean. Hainbat ikerketa burutu ditu Iberiar Penintsulako bare-barraskiloen taxonomiaren eta banaketaren gainean: Eusko Legebiltzarrak

Munibe Saria eman zion bere ikerketa-taldeari 1992an.

Gazterik euskaltzaletu zen, Caro Baroja irakurritz, eta 1978tik aurrera Udako Euskal Unibertsitateko kidea da, 1992-95 tartean zuzendaria izan zelarik. UZEI, Elhuyar eta Euskaltzaindiarekin kolaboratu izan du. Idazlan ugari plazaratu ditu, baina gogokoenak dibulgaziozkoak.

Liburuen artean: *Folin marka: marraskiloak eta euskaldunak uharte galduan* (Elhuyar, 1998), *Armand David, pandaren aita* (Elhuyar, 2001), *Etxepare, Aldudeko medikua* (Euskaltzaindia / Euskal Herriko Unibertsitatea, 2006), *Darwin geurean* (Pamiela, 2010), *Arnaut Abadiaren zoo ilogikoa* (Pamiela, 2011), *Back to Leizarraga* (Pamiela, 2015) eta *Patagoniara Hazpainen barrena* (Pamiela, 2017. Euskadi Saria 2018).



**PAMIELA**  
argitaletxea